



*Gazteaganako maitasuna konfiantzaren bidez ere adierazten dugu. Gaur egungo gazteei konfiantza emateko modurik konkretuena gizarte bizitzak askotan ukatzen dien protagonismoa itzultzea da. Hori zehazten dugu, batetik, maila indibidualean, hazkuntza prozesua (sentimendua eta borondatea) pertsonalizatzen lagunduz eta, bestetik, gizarte mailan, gazteak duen protagonismoa, besteekiko eta gizartearekiko erantzukizuna bere gain hartzen lagunduz konpromisoa eta partaidetza)*  
**Ebanjelizatzaileak gazteen artean, 94. zenbakia**

*Eta ahots bat entzun zen zerutik, honela zioena:  
«Hau da nire Seme maitea, nik aukeratu dudana».*

**Mateo 3, 17**

## KONTATU NIREKIN

Ongi etorri 2024/25 ikasturtera. Hemen daukazu Europako Maristek ikastaroan zehar lantzeko goiburu komun gisa eskaintzen duten hezkuntza proposamena. Datozen 12 hilabeteetan, ikastaro hau gazteen parte hartzea sustatzera bideratu dadin nahi dugu, horrela gure haurrak eta gazteak hartzaile gisa ez ezik, gure ekintza guztien bultzatzaile gisa ere jar ditzagun, Jainkoak eskatzen digun bezala.

Bere lanari ekin bezain laster, Marcelino Champagnat sortzailea eta ausarta izan zen bere garaiko gazteen errealitatera hurbiltzeko. Hilabete gutxi batzuk besterik ez zeramatzan La Vallan koadjutore gisa Jainkoaren berri inoiz entzun ez zuen eta hilzorian zegoen mutil gazte bati laguntzeko deitu ziotenean. Garai hartako aurreiritzi guztiak bertan behera utziz jokatu zuen, pertsona erdigunean jarriz. Montagne esperientziak hain sakon ukitu zion bihotza, ze bere bizitza osoa misio bakar bati eskaini baitzion: Jesukristo gazte guztiek, batez ere behartsuenek, ezagutu eta maita zezaten ahalegintzea. Eta ekintza horri ere bi gazteren laguntzarekin ekin zion 1817ko urtarrilaren 2an.

Orduz gerozko istorioa ezaguna da gaur egungo marista guztientzat, karisma haren oinordeko baitira. Baina bada xehetasun bat agian oharkabean geratu dena. Bere lehendabiziko taldea, hainbat eta hainbat hezitzailearen aitzindari izango zena osatzeko, ez zituen hautatu irakasle trebatuak, ez eta adineko erlijiosoak ere. Hasieran, aipatu dugun bezala bi gazte aukeratu zituen, 22 urtekoa bata, 16koa bestea. Garai hartan guztiz ezohikoa zen protagonismoa emanaz, bere misio hezitzaile eta ebanjelizatzailearen zentroan ipini zituen eta haien lanaren fruituak oraindik hor dirau berrehunetik gora urte igaro ondoren.

Gizartearen bilakaerak, eta horrekin batera hezkuntza erakundeenak, gazteak hezkuntza prozesuen hartzaile huts izatera eraman zituen. Baina aspalditik ari dira gazteak errealitatearen aldaketan parte hartzeko borondatea adierazten. Gazteek gizarte jasangarria bilatzen dute, naturarekiko errespetuan, giza eskubide unibertsalean eta justizia ekonomikoaren eraginkortasunean oinarritua, bake kultura ekologiararen ikuspegi integral batetik. Horietako batzuk gobernuz kanpoko erakundeetan edo erakunde politikoetan beren konpromisoaren bidez aldaketa bat sustatzen saiatzen dira, gazteei dagozkien gaiak eztabaidatu daitezen eta eztabaida horietan aktiboki parte har dezaten. Guk kezka horiek jaso behar ditugu, eta gure laguntza eskaini behar dugu hazten jarrai dezaten, eta inplikatuak gero eta gehiago izan daitezen.

“Kontatu nirekin” goiburuarekin, tradizio maristaren hasierara itzuli nahi dugu, haurrak eta gazteak gure hezkuntza jardueraren helburu ez ezik, jarduera horren eragile ere izan daitezten. Horrela lagundu nahi diogu pertsona bakoitzari bere nortasunaz jabetzen, etorkizunera itxaropenez begiratzen, existentzia pertsonal eta kolektiboaren bilbe konplexu horretako protagonista sentitzeko gai izan dadin eta, norbere errealitatearen agente eraldatzailea izanik fedea eta bizitza integratuz eta hori guztia, Jainkoak sakonki maite duela sentitzeko esperientzia sendo batetik.

Ikastaroko motibazioa garatu zuen taldea lanean hasi zenean, konturatu ziren kontuz ibili behar zela goiburu horrekin lortu nahi zen helburua zehaztean. Arrisku nagusia zen eslogana gazteei egiten zaien erantzukizun lagapen onbera eta paternalista gisa interpretatzea, alegia, gazteei gure proiektuetan parte hartzen uzten diegula. Ez da hori inondik inora. “Kontatu nirekin” hori garatzeak esan nahi du konturatzea haiek direla, haurrak eta gazteak, erantzukizun hori beren gain hartu nahi dutenak eta horrek berekin dakarren guztia.

Beharrezkoa iruditzen zaigu, halaber, gure gazteentzat nahi dugun protagonismoari mugak jartzea. Ez da sare sozialetako protagonismoa, ez da *influencer* baten protagonismo hut-sala, besteen onarpen erraza besterik bilatzen ez duena. Zentzu proposameneko benetako protagonismoaz ari gara, hazten lagunduko diena, eta gaur egungo gizartean nola bizi behar den bereizten lagunduko diena, norberarekiko, besteekiko eta Jainkoarekiko topaketaren ikuspegitik.

Gazteen dei hori onartzeak hainbat galdera planteatzera eraman behar gaitu geure ikas zentroko, gure gizarte ekintzako egunerokotasunean. Ikasturte hau aukera ezin hobea da agian deseroso gertatuko zaizkigun galdera horiek egiteko, baina berauen erantzuna gazteen deia- ren erantzuna da:

- Gure ikas zentroak errazten al du ikasleen parte hartzea? Egokiak al dira ordutegiak, espazioak...?
- Ematen al diegu dagokien garrantzia gazteen hazkunderako beharrezkoak diren eta inter- pelazioa eta bereizketa eragiten dieten gaiak? Gai horiek azaltzeko eta beraien kezka- garatzeko espazioak eta baliabideak ematen al dizkiegu?
- Haiekin harremanak ditugun esparruetan, saiatzen al gara haien hizkuntza eta komunikat- zeko modua ulertzen? Garai akademikoetan, kirolean, aisialdian eta denbora librean gaz- teak dauden lekura joateko ahalegina egiten al dugu?



- Eurak al dira beren ebanjelizazio prozesuetako protagonistak? Benetan sinesten al dugu inork ez dituela gazteak ebanjelizatzen gazteek eurek baino hobeto?
- Azken batean, prest al gaude gure hezkuntza prozesu *irakaslezentrikoen* ordez prozesu *ikaslezentrikoak* ezartzeko, gazteak elementu nuklear bihurtuz?

Puntu honetan ezin dugu ahaztu Mariaren irudia. Emakume apal baina aldi berean indartsu hori, aitari esateko gai izan zena: *hemen naukazu*. Jauna bera ere gai izan zen haren errealitatera egokitzeko eta haren bitartekotza baliatu zuen misiorik harrigarriena gauzatzeko: Jainkoa giza errealitate bihurtzea, Haren "*kontatu nirekin*" hark gu guztion inspirazio iturri izan behar du ikasturte honetan.

Aurtengo goiburua gure konstituzio maristen 83. zenbakiak egiten duen deiari eman diezaiokegun erantzuna da: "*Goazen gazteen bila beraiek dauden lekura. Ausarki sartuko gara agian arrotzak gertatzen zaizkigun lekuetan; pobrezia material eta espiritualeko gunean itxaroten digu Kristok.*" Ikasturte honetan ez diezaiozula entzungor egin inguruan ditugun haur eta gazteek egiten diguten dei horri: *Kontatu nirekin*. Ikasturte zoriontsua!

## ONARRI BIBLIKOA ETA IKASLEEKIN LAN EGITEKO JARRAIBIDEA

Nolako protagonismoa nahi dugu? Itxurakeriazko protagonismoa ala bihotzez konprometitzen duena? Atsegin dugunaren protagonismoa ala bizia ematea suposatzen duen protagonismoa? Gure proposamena proposamen sakon baten protagonista izatea da, kontrakorrantea eragiten duena, Nazareteko Jesusen proposamenaren jarraitzaile izan nahi duena.

Eukaristiaren ezarpenari buruzko Bibliako kontakizunean oinarritzen dugu, eta gelan edo gogoeta taldeetan lantzeko proposamen batzuekin batera aurkezten dugu.

### Pedro, edo protagonismo nahia

Pedro oldarkorra, odolberoa eta adimen urrikoa da, eta protagonismoa lapurtu dio Jesusi ikasle taldearen barruan. Sinetsita dago bere estrategia erreformista bortitza, boterea indarrez hartzea eskatzen duena, Jesusen anaitasun unibertsalaren proposamena baino eraginkorragoa dela, estrategia baketsua eta adimena irekitzea eskatzen baitu. Ez da batere zuhurra, eta bere ezjakintasunean Jesus baino argiagotzat dauka bere burua. Eta mesias garailearen diskurtso politiko zuzenak defendatzen duenez, dizipulu sektore garrantzitsu baten laguntza bereganatu du, Jesusen beraren agintea ahulduz.

### Hitzak inspiratu egiten gaitu: **Mateo 26,31-35**

*Orduan, Jesusek esan zion:*

*—Gaur gauean bertan huts egingo duzue denok, nire erruz, idatzita dagoelako: «Artzaina zaurituko dut eta artaldeko ardiak sakabanatu egingo dira»; baina, berpizten naizenean, zuen aurretik joango naiz Galileara.*

*Pedrok erantzun zion:*

*—Jesusek esan zion:*

*—Ziurtatzen dizut gaur gauean bertan, oilarrak jo aurretik, hiru aldiz ukatuko nauzula.*

*Pedrok erantzun zion:*

*—Zurekin hil beharko banu ere, ez zaitut inoiz ukatuko.*

*Eta denek esaten zuten gauza bera.*

### Interpretazio labur bat

Oliamendiko bidean, Jerusalem suntsituko zuela iragarri zion lekuan, esan zion:

— Zuen fanatismoak ez dizue uzten Jainkoaren proiektura irekitzen. Anbizio handiko edonork, botere gosea eta urre apur bat badauka, bere hitz jarioarekin limurtu egingo ditu berari sinesteko prest dauden guztiak eta hor daukagu beste belaunaldi bat erromatar armadaren aurka oldartzeko prest. Horixe gertatu zen Judas Galileorekin. Azkenean, denak hilda eta herrialdea suntsituta. Agian taldean baduzue beste mesias bat ni baino hobea. Eska iezaiozue hari garaipen militarra gidatzeko.

Pedro, Jesus berari buruz ari zela oharturik, salakuntzatik babesten saiatu zen, baina bere harrokeria alde batera utzi gabe:

— Jesus, oker zabiltza. Ni zure laguntzaile leialena naiz. Kritikatzen bazaitut, zure hobe beharrez egiten dut hori. Hauek guztiak huts egiten badizute ere, nik ez diot beldurrik ez ezeri eta ez inori. Behar izanez gero, zurekin hilko naiz, Jainkoak ez dezala nahi.

Jesusek esan zion:

— Ezin zara egunero niri traizio egiten ibili egon, eta gero negatik hiltzeko prest agertu. Pedro, zure anaiek ihes egingo dute; eta zuk erabat ukatuko nauzu. Pedro, nor zaren esango dizut: antzina, inperioaren aurka oldartzeko herria armak hartzera behartu zuten fanatiko haiek bezalakoa zara. Botere gosez zeuden ergelak, zoritxarrekoen etsimendua baliatu zuten eta

irabazi ezin zezaketen gerra batean hiltzera eraman zituzten. Hori da zure programa mesianikoa, Pedro.

Pedrok erantzun zion:

– Ez, Jesus, inolaz ere. Ni besteak baino hobea naiz. Ausartagoa, gogorragoa. Zurekin hilko naiz, zalantzarik gabe.

Jesusek iragarri zuen:

– Fanatismo nazionalista uzten duzuenean eta gainerako gizateriari gogoa eta bihotza zabaltzen diozuenean, Espiritu Santuak maitatzeko indarra emango dizue, baina amorru itsuaren kontsignak jarraitzen dituzuen bitartean, bakarrik egin beharko diezue aurre boteretsuen errepresio aparatuei (hala nahi duzuelako). Ez zaudete prest haien ankerkeria jasateko.

Baina denak bat zetozen Pedrokekin, beren maneatzaille harroputzarekin.

### Gogoetarako galderak

- Bi lider mugimendu berean: Jesus eta Pedro. Nork du laguntza gehien ikasle nazionalisten taldean?
- Zer ezaugarri ditu Pedroren ikuspegi estrategikoak?
- Zer balio, interes dituzte Jesusen erabaki estrategikoek? Zergatik ez ditu ikasleak konbentzitzen?

### Adierazpen askatasuna: egiturentzako mehatxu bat

Garai batean, librepeentsalariei, giza duintasunaren aldeko, zapaltzaileek ez zieten hitz egitea debekatzen, edo beren kanala ixten, ez zituzten sare sozialetan pertsegitzen. Garai bateko tiranoek beren sikarioak bidaltzen zizkieten, atxilotu eta torturatu zituzten, edo bestetik gabe hiltzen zituzten. Delitua betiere berbera da: eliteen propaganda diskurtsoa zalantzan jartzea eta pentsamendu askatasuna eta lege bidezkoagoen ezarpena sustatzea.

Gaur egun, kanal librepeentsalaria esango genuke, jende ausartak protagonizatua, egiaren eta anaitasunaren zerbitzura diharduena, ia inor ausartzen ez den gauzak beldurrik gabe esaten dituen, jendearen onarpena bost axola zaiolako. Komunikatzaile horiek Jainkoaren eta egiaren zerbitzura dihardute. Ez dioten beren burua inori saltzen. Ez dira inoren beldur. Zein gai dira zabaltzeko arriskutsuak? Zer gauza ezin dira esan? Zu zer ez zinateke ausartuko jendarean defendatzera?

NAZARETEKO JESUSI bere kanala ixteko mehatxua egin diote, anaitasun unibertsaleko diskurtso librepeentsalari hori bertan behera uzten ez badu. Herriari traizio egitea da eliteen kontsignak ez errepikatzea eta juduek paganoekin alderatuta duten gehiagotasun arraziala eta morala ukatzea.





### Hitzak inspiratu egiten gaitu: Mateo 26, 26-30

*Jaten ari zirela, Jesusek ogi bat hartu zuen, bedeinkatu eta zatitu egin zuen; gero, bere dizipuluei eman zien, esanez:*

– *Hartu eta jan ezazue; hau nire gorputza.*

*Eta kopa bat hartuta eta eskerrak emanez, dizipuluei eskaini zien, esanez:*

– *Edan denok hemendik; heu nire itunaren odola da, denon bekatuen barkamenerako isuriko dena. Jakizue aurrerantzean ez dudala gehiago edango mahatsaren emaitza honetatik harik eta Aitaren erreinuan egonik, zuekin batera berriro edango dudan arte.*

*Eta afaldu ondoren, Oliamendirantz abiatu ziren.*

### Interpretazio labur bat

*Afariaren testuinguru historikoa:*

*Jesus jakitun zegoen erregimenaren errepresio aparatuek edozein unetan erasoko ziola. Eliz agintarien ustelkeriaren aurkako salaketa ausartak eta emakume eta marjinetuen alde agertu zuen jarrerak, ezarritako ordenaren bidegabekeria gaitzesteaz gain, arriskuan jartzen zituen buruzagi juduen pribilegioak. Bestalde, Jesusen jarraitzaile nazionalistek haren boterea eskuratzea amesten zuten, horretarako indarkeria erabili beharko bazuten ere. Ia desiatzen zeuden apaizen eta agintari erromatarren arteko borroka piztu zedin, David erregearen edo Ché Guevararen edo ez dakit noren dinastia berrezartzeko. Auskalo.*

Mahaiaren espazio sakratuan, hitzek Jainkoa lekuko dutela, Jesusek bihotzetik hitz egin zuen:

- > Badakit ideologiak errealitatea ulertzea eragozten dizuela. Ni erregimenaren aurkako mehatxua naiz, eta hil egin nahi naute. Nirekin harreman estua duzuenok arriskuan zaudete.
- > Erromaren aurkako gorrotoa irakatsi zizueten, eta buruan sartu zizueten Jainkoaren gerlariaren fantasia, armen indarrez atzerriko herriak garaituko zenituztela eta dinastia judua nazioaren buru berrezarriko zenutela. Ez kontatu nirekin neure herriaren hondamendia eragiteko.
- > Aitaren asmoa anaitasun unibertsala da, jendearen oparotasuna eta askatasun pertsonala. Helburu horietako bakar bat ere ez da lortzen gerrarekin.
- > Ez dut gatazka armaturik sortuko, ez dut zapaltzaileekin negoziatuko, ez ditut bertan behera utziko ideologia erlijioso fanatiko eta zapaltzaileari uko egitera ausartu

zirenak. Ez daukat beste aukerarik eta maitasunean irautea erabaki dut.

- > Ikasleak, hunkituta baino gehiago, dezepzionaturik zeuden; baina azken afari historiko hartako Jesusen jestuak grabatuta geratu zitzaizkien. Berpizkundearen ondoren, ulertzen hasi ziren.

Jesusek ogia hartu eta eskuekin zatituz, esan zuen:

- > Ogi hau ni naiz eta egiten ari naizen jarduera askatzailea. Nirekin zaudete ala ez?

Gero, kopa hartu eta esan zuen:

- > Hau da nire bizitza, maitasunez ematen dudana. Nirekin eta nire jarduera askatzailearekin al zaudete? Heriotzaraino?

Jesusen kopa beretik edateko jestuarekin BIZIA EMATEKO proiektuarekiko atxikimendua berritu zuten, eta hil arte jarraitzeko konpromisoa hartu zuten. Ordu batzuk geroago ukatu egingo zuten. Gurutzean hil izanak porrot historikoa eta etsaien garaipena ekarri zituen. Amaiera?

Jainkoa Maitasuna da. Maitasuna da indar bizi emaile ahaltsuena, baina ahultasun bat dauka: ezin dela inposatu boteretik. Maitasuna askatasunez hartu eta komunikatu behar da. Jesusen estrategia baketsuaren gaitzespen historikoak lehen ondorio bat izan zuen: herri juduak, bere eliteek manipulatu, gerraren bidea hautatu zuen eta Erromak suntsitu zuen. Anaitasuna eta Jainkoaren erreinua gaitzesteak hondamena dakar, ez Jainkoaren zigor gisa, erabaki gaiztoen ondorio gisa baizik.

Baina maitasun iraunkor, leial eta saiatuak, Jesusen etsipenerako eskuraezinak, eternitateko bidea ireki zigun. Jainkozko esferara igota, bere dizipuluei agertu zitzairen eta haiek historiaren amaiera aldatu zuten. Ebanjelariak azken afariko oroitzapen historikoa osatu zuten Kristo Berpiztuaren ahotsarekin. Hau memoriala da (orduan gertatu zena, orain ere gertatzen jarraitzen du, haren proiektuaren jarraitzaileak maitasun hura berritzeko biltzen dira aldi oro).

### Gogoetarako galderak

- Zergatik uko egiten dio Jesusek bere "kanaleko" edukiak aldatzeari?
- Zergatik ez die barkamenik eskatzen bere iritzi askatasunagatik minduta sentitu direnei?
- Zertan dago oker Jesus, bere dizipuluen eranspena galtzera iristeko? Zertan eman behar luke amore, elkarriketa eta negoziazioa onartu, balioak murriztu?
- Zergatik tematzen da bere mesianismo baketsuan, jakinik horrek bere proiektuaren gaitzespenera eta porrotera daramala?
- Jainkoaren zein irudi dago dizipulu nazionalisten ideologiaren sakonean?
- Jainkoaren zein irudik animatzen du Jesus bere erabaki guztien zentroan maitasuna jartzeko?



## Nazareteko Jesusen kanala itxi egin dute komunitatearen arauak ez betetzeagatik (eta ez dio inori axola)

### Hitzak inspiratu egiten gaitu: **Mateo 26, 36-46**

*Orduan, Jesus haiekin Joan zen Getsemani izeneko baratze batera, eta honela esan zien dizipuluei:*

– Eseri hemen, ni horra otoitz egitera noan bitartean.

*Eta Pedro eta Zebedeoren bi semeak berekin hartuta, goibeltzen eta larritzen hasi zen. Orduan esan zien:*

– Nire arima triste dago heriotzaraino; geratu hemen eta beilatu nirekin.

*Eta pixka bat aurreratu zen eta, ahuspez etzanda, honela egin zuen otoitz:*

– Aita, ahal bada, pasa dadila kopa hau nigandik, baina ez dadila gerta nik nahi dudana, zuk nahi duzuna baizik.

*Orduan, dizipuluengana itzuli zen eta lotan aurkitu zituen; eta Pedrori esan zion:*

– Ezin izan duzue ordubete ere nirekin beilatu? Beilatu eta egin otoitz, tentaldian ez erortzeko; izan ere, espiritua prest dago, baina haragia ahula da.

*Eta berriz ere bigarren aldiz urrunduz, honela esan zuen:*

– Aita, ezinbesteko bada nik kopa hau edan dezadan, egin dadila zure nahia. Berriro itzuli zen eta lotan aurkitu zituen, haien begiak kargatuta baitzeuden.

*Utzi zituen eta hirugarren aldiz joan zen otoitzera, hitz berberak errepikatuz. Ondoren dizipuluengana itzuli zen, eta esan zien:*

– Orain egin dezakezue lo eta atsedean hartu. Begira, iritsi da ordua gizonaren semea bekatarien esku utzia izango dena. Altxa! Goazen! Hemen dator salduko nauena.

### Interpretazio labur bat

Jesusek azken afariaren ondorengo gaua "almazara" edo "olio dolare" izenaz ezagutzen zen leku batean igaro zuen bere dizipuluekin. Han hotzetik babestuta lo egin ahal izateko txoko bat zegoen. Jesusek leku gorde bat nahi zuen Aitarekin bakarka jarduteko eta zetorkion erasoaldiari aurre egiteko indarra eskatzeko, eta gauza bera egitera gonbidatu zituen bere mesianismo baketsuaren aurkako dizipuluak: Pedro, Santiago eta Juan.

Bere misioari jarraiki, Jesusek ahaleginak egin zituen herria erregimenaren manipulazio ideologikotik ateratzeko; baina ikusirik bere dizipuluengan errotuago zegoela fanatismo nazionalistaren birusa bere anaitasun unibertsalaren mezua baino, erabat goibeldu zen Jesus:

– Pena ematen dit ikusteak zeinen antzekoak diren zuen helburuak eta zuen zapaltzaileenak. Baztertu ezazue fanatismo erlijioso nazionalista itxi hori, eta eskatu Jainkoaren indarra erregimenaren errepresaliei aurre egiteko. Neure alde behar zaituztet, nirekin.

Isiltasuna beste erantzunik ez duen Jesus sekula baino eroriago dago. Fedea galtzen ari ote da?

Jesus, bere dizipuluen bistatik gorderik, lur jota dago eta honela erregutzen dio Jainkoari:

– Jordan ibaian zure misioa onartu nuenean, banekien jokoan jartzen nuela neure bizitza. Hasieratik ikusi nuen bortizki hiltzeko arriskua. Baina orain, neure amaiera hain hurbil ikusten dudalarik, ez dut batere itxaropenik. Nire heriotzak ez du inolako erreakziorik, inolako aldaketarik eragingo. Ez zaio inori inportako.

Mesias baketsuari uko egitearen ondorioa Israelen hondamena ekarriko duen gerra izango da. Ez dut onartzen ideia hori. Aita, egin mirari bat, herriaren begiak irekitzeko. (Jainkoaren isiltasuna esanguratsua da: "Badakizu ezin dudala hori egin. Ezin diet kendu beren patua erabakitze askatasuna"). Jesusek jarraitu zuen:

– Egin nuen neure lana, baina herriak ez zidan entzun. Aske sentitzen naiz misioa utzi eta neure burua salbatzeko. Badakit ni ere libre naizela amore emateko. Baina... nola nola eman dezaket amore neure mezuaren zentzua eta santutasuna hondatu gabe?

Dizipuluengana joan zen baina ez zuen aurkitu haiengan ez ulerkuntzarik ets ez babesik. Beren atxikimendua Mesias garaile bati ematen zioten, ez Mesias frakasatu bati. Ez zaie burutik pasa ere Jesus hil daitekeenik. Beren fanatismo nazionalistak itsutuegi zeuzkan errealitatea ikusi ahal izateko. Jesusek argi hitz egin zien berriz ere:

– Espirituaren indarra erregutzeak ez zaituzte arriskuan jartzen eta hori ere ez duzue egiten. Lagun iezadazue otoitzean, proba unean ez huts egin ez dezadan; ideal noblei buruzko hitzaldiak egitea oso ondo dago; baina oso desberdina da sikario armatuen eta tortura tresnen benetako arriskuaren aurrean aurkitzen zarenean.

Eta bigarren aldiz urrunduz, honela egin zuen otoitz:

– Aita, aurrera jarraitzea erabaki dut. Eman indarra bizia emateraino maitatzeko. **BADAKIT NIREKIN KONTATZEN DUZULA.** Eta, porrot egiten badut ere, bete dadila anaitasun unibertsaleko zure borondatea.

Berriro itzuli zen eta dizipuluek lo jarraitzen zuten, errealitatera itxiak. Bakean utzi zituen eta hirugarren aldiz errezatu zituen hitz berberak errepikatuz. Jesusek ez du jadanik zalantzarik izango. Bere maitasuna bezain tinkoak izango diren kemen eta naretasunarekin egingo dio aurre heriotzari. Ez dio beldurrik heriotzari, ez dio beldurrik ezein gizoni. Aitaren esku jarri zuen bere bizitza eta Hark Jainkozko maitasunez maitatzeko indarra kutsatzen zion.

Gaitzespenik gabe, sermoirik gabe, nare arriskuaren aurrean. Iritsi da garaia gizon libre hau elite zapaltzaileen eta errepresio aparatuen eskura jartzeko. Diktadura bateko epaitegiaren aurrean ez dago defentsarako aukerarik, maitasunean irautea beste biderik ez dago. Ahots horiek nire bila datozen sikarioenak dira.

### Gogoetarako galderak

– Deskriba ezazu maitasun leiala kontakizunean oinarrituz. Zergatik erabakitzen du Jesusek maitasunean irautea mundu guztiak bizkarra ematen dionean?

– Azaldu kontakizunean "Jainkoaren isiltasuna". Zergatik ez du aitak mirari bat egiten Jesusen heriotza saihesteko?

– Nola sentitzen du Jesusek Jainko Maitasunaren hurbiltasuna?

Eukaristiaren kontakizunera itzuliko gara. Berriro irakurriko ditugu azken afariko gertaerak oinarritzat hartuz Berpiztuarekiko topaketa, Jainkoak errebindikatu eta Jainkozko esferara jasoa. Jesusen helburua ez zen onespina lortzea, ez boteretsuena, ez jendetzarena ez eta bere dizipuluena ere, baina Aitaren onspina lortu zuen, maitasunean iraun zuelako. Bide horrek zabalik jarraitzen du haren jarduera askatzailearekin jarraitu nahi dutenentzat.

### Zer protagonismo da guk nahi duguna?

#### Gaur. Orain. Eukaristia bakoitzean

*Jesus Berpiztua: Hau neu naiz eta nire jarduera askatzailea (ogia-gorputza). Nik hasi nuen prozesu askatzailearekin jarraitu nahi duzu?... Bizitza emateraino? (ardo-odola)*

*Ikaslea: Nik onartzen zaitut zu eta bat egiten dut BIZIA EMATEA proiektuarekin, eta zuk bezala, gauzak arriskutsu bihurtzen direnean, ez dut atzera egin nahi.*

#### Berpiztuaren ahotsa, bizirik jarraitzaileen komunitatean

–Ni mundu honetatik ongia eginez igaro nintzen, totalitario eta fanatikoaren aurrean giza duintasuna defendatuz. Nire ametsa izan zen hemen lurrean aurreratzea zeruko senidearteko banketea. Neure konpromisoak gurutzean hiltzera eramanez ninduen eta nire heriotzarainoko maitasunak neure jainkotzean izan zuen bere gailurra. Baina oraindik garaitu beha-

rreko gorroto asko geratzen dira, ase beharreko justizia gose asko, oihukatu beharreko egia asko, eraitsi beharreko erregimen totalitario asko. Baina eginkizun horiek ez dagozkit niri, neure jarraitzaileei baizik. Nik urratu nuen eternitaterako bidea, gizateria osoaren onerako, beste batzuek jarraitu behar dute.

Baina ez zaudete bakarrik. Mundu honetan gizaki orok bere potentzial guztia aske garatzeko baldintzak sortzeko daukadan proiektuaren jarraitzaile guztioi jainkotasuna jakinarazten dizuet (ardoa=bizitza Espirituan). Eser zaitezte mahai eukaristikoari egindako maitasunarekin, eskatu Espiritu Santuaren indarra, bizia emateraino maitatzeko indarra; berritu giza duintasunarekiko duzuen konpromisoa, eutsi maitasunari eta lortu jainkotasuna, Jainkoarena bezalako betiereko bizitzara berpizteko.

### Azken konklusioak

- > Ez saiatu onespena beste pertsona batzuegan aurkitzen. Saia zaitez zeure balio pertsonala areagotzen.
- > Berpizkundea Jesusen Aitak bizitza emankorra baliozkotzea da. Bizitza emankorra da maitasunean irauten duena. Deskriba itzazu maitasun leialaren ezaugarriak Jainkoak egiazkotasunez eskatzen dionari ematen dion maitasun horrenak.
- > Zein da miresleen, imitatzaileen eta jarraitzaileen arteko aldea.
- > Dizipuluek ez zuten lehen aldian neurria eman, baina Jainkoaren eskaintzak zutik jarraitu zuen. Jesusek ez zituen galdutzat eman. Bere potentziala ezagutzen zuen, haien ahala. Zein dira zure gelan ahal handiena duten pertsonak? Maitasunean irauten duenez bakarrik fidatu zaitezke. Zure lankideen artean nor da ahal handiena duena?

## INSTITUTU MARISTAREN DINARRIAK

2017an, Institutu Maristak bere berrehungarren urteurrena ospatu zuen. Urte horretan, XXII. Kapitulu Nagusian bildu ginen munduko maristak, eta konpromiso batzuk hartu genituen; horietako bat izan zen dihardugun "misio-errealitate guztietan haurrak eta gazteak ahalduntzeko ekimenak garatzea".

Haurrak eta gazteak ahalduntzeko, parte hartzeko duten eskubidea erabili behar da, hori baita NBEren Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren printzipio gidaria, 1989an Batzar Orokorak onartua. Konbentzioak eragina izan du Institutu Maristan ere, eta,aldi horretan, haur eta gazteek parte hartzeko ariketak eta espazioak biderkatu egin dira animazio eta gobernu maila ezberdinetan.

Agenda hori bultzatzen jarraitzeko, eta Konbentzioaren 30. urteurrenaren testuinguruan, 2019 urtearen amaieran, Institutuko Hezkuntza eta Ebanjelizazio Idazkaritzak "Altxa zaituzte, izan iritzia eta Parte hartu" proiektua jarri zuen martxan, eta, bere helburuen artean, gida bat egitea erabaki zuen, haurren eta gazteen parte hartzeari eta protagonismoari buruz, karisma maristaren ikuspegitik, eskoletan, zentro komunitario eta sozialetan, aterpetxeetan, apostolatuetan eta haur, nerabe eta gazteekin lan egiten den espazio marista guztietan parte hartzeko ardatz eta ildo orientatzaileak proposatzeko.

Irakasle, bideratzaile, gidari edo hezitzaile gisa egiten dugun lanaren parte diren hezkuntza praktika guztiek gure jarduna gidatuko duten printzipio batzuk izan behar dituzte. Printzipio horiek bide mapa gisa funtzionatzen dute, eta ezin gara hortik desbideratu; izan ere bestela modu disfuntzionalan jokatu genuke gure hezitzaile lanean.

### 1. Autonomia progresiboa

Autonomia progresiboak adierazten digu helduek haur, eta nerabeekin gauzatzen duten zuzendaritza eta orientazio lana zuzenean lotua dagoela beraien ahalmenen bilakaerarekin. Horrek esan nahi du pixkanaka gaitasun kognitibo, fisiko, sozial eta emozional handiagoak bereganatzen ari direla. Hori gertatzen den bitartean, helduen rola berdinzaleagoa eta horizontalagoa izan behar du; hala, haurrek eta gazteek gero eta ardura gehiago bereganatu ahal izango dituzte, beren eskubideak eta askatasunak modu autonomoagoan erabiltzeko.

Haur eta gazteen autonomia progresiboa nola gara daitekeen ikusteko adibideak:

- Haiekin batera aztertuz, daukaten adinari, gaitasunei eta heldutasun mailari dagozkien konponbideak.
- Galdetuz ea, euren ustez, nola lagun diezaiekegun.
- Gauzak haurren ordez norberak eginez eta hurrengoan eurak egiten saia daitezen utziz (Adibidez: oinetako kordelak lotzen).

### 2. Genero ikuspegia

Genero rolen eraikuntzarekin batera, haurrak beren sozializazio prozesuaren parte gisa garatzen dira. Genero rol horiek eraikuntza sozial eta kulturalak dira, denboraren bidez eskuratuak, eta gizarte bakoitzak gizonetako eta emakumeen portaeratik espero duena ematen dute, alegia, sexu biologikoari lotutako rola dira. Gure gizartean genero rola zalantzan jartzen ez badiugu, ideia horiek konplexuago bihurtzen dira eta mugatzaileago, baztertuaileago edo are diskriminatzaileago; esate baterako, emakumeek ez dutela estudiatu behar, baizik eta etxean geratu behar dutela haurrak zaintzera; edo gizona dela familiaren mantenuaren erantzule bakarra.

Genero ikuspegia praktikara nola eramán ikusteko adibideak:

- Jolas eta kirol jardueretan bereizketarik ez egitea neskatoen eta mutikoen artean; adibidez, jolas orduetan neskatoek ere futbolekin jokatu ahal izan dezatela.
- Haur eta nerabe neskatoak haur ezkontzatik babestuz.
- Haur eta nerabe neskatoei zientzien arloko hezkuntza eskainiz.

- Sexu eta ugalketaren arloko osasuna sustatuz, edota nerabeen haurdunaldia eta sexu bi-dezko transmisioeko gaixotasunak prebenituz.
- Genero indarkeriari aurre egiteko protokoloak betez geure ardurapeko haur eta nerabeekin.

### 3. Berdintasuna eta bereizkeriarik eza

Konbentzioaren 2. artikuluan aipatzen da eskubide guztiak bermatu behar zaizkiela haur eta nerabeei, edozein dela ere haien arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikan edo beste edozertan duten iritzia, jatorri nazionala, etnikoa edo soziala, egoera ekonomikoa, eragozpen fisikoak, jaiotza edo beste edozein baldintza. Aurrekoa berdintasunerako eta diskriminatua ez izateko eskubideari dagokio.

Berdintasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak nola gauzatu ikusteko adibideak:

- Ikasle eta gizarte lanetako kolektibo guztia kontzientziaz eta heziz, jarrera eta praktika diskriminatzaileek pertsonengan dituzten ondorio negatiboak gainean.
- Hainbat material erabiliz, hala nola dokumentalak, pelikulak, ipuinak, saiakera laburrak, hitzaldiak, etab., bereizkeria, arrazakeria, xenofobia, misoginia, homofobia, lesbofobia eta bestelako bereizkeria praktika batzuei buruz gogoeta egiteko.
- Behar diren ekipo eta baliabideez hornituz ezgaitasunen bat duten haur eta gazteek beren iritzia askatasunez eman ahal izateko eta iritzi hori behar bezala kontuan hartua izan dadin.
- Bereizkeriazko jokabideen aurrean "Zero tolerantziako" politikak ezarriz hezkuntza komunitatean.

### 4. Hezkuntza ekitatea

Komunitate maristako kide garenez, beharrezkoa da eskola eta gizarte lan gisa dugun helburuetako bat hezkuntza ekitatea izatea, zalantzarik gabe. Hemen identifikatu beharra dago berdintasunaren eta ekitatearen arteko desberdintasuna. Berdintasunezko hezkuntzak guztiontzako baliabide berdinak eskaintzea proposatzen du, nahiz eta badakigun haur, haur eta nerabe bakoitza desberdina dela. Ekitatearen nozioak uko egiten dio guztiok gauza bera merezi dugula dioen ideari, eta, aldiz, gutxien duenari, laguntza gehiago ematea proposatzen da, bere urritasun sozial eta ekonomikoak konpentsatzeko. Berdintasunaren kontzeptuak ez du nahitaez justizia inplikatzeko, ekitatearenak bai.

Hezkuntza ekitatearen printzipioa nola praktikan jarri ikusteko adibideak:

- Erraztasun handia dutenen eta nekezago ikasten dutenen arteko arrakala murrizten lagunduko duten lankidetzak estrategiak sortuz.
- Eskolan edo gizarte ekintzetan ikasle bakoitzak egiten duen ahalegina balioesteko ekimenak sortuz, eta ez nabarmenenak bakarrik.
- Irakasleen artean hausnarketarako eta eztabaidarako guneak sortuz, haurrek eta nerabeek dituzten behar espezifikoak erantzuteko modu sortzaileak asmatzeko.
- Gurasoei laguntzea haurrak eta gazteak sartzen beren behar espezifikoak erantzuneko dieten kanpoko erakundeetara (adibidez: eskolako laguntza, laguntza medikoa eta psikologikoa, kirolak, gizarte lana, gizarte programak...).

## HILEROKO GOIBURUAK

### Iraila: iritsi da gure unea

Ikasturte berri bat hasi da, eta lehenengo egunetik gazteek protagonista izan nahi dute. Etorri berriari harrera egin. Urteko helburuak finkatzen hasi. Aurkitzen ditugun aldaketak aztertu. Denbora planifikatu, garrantzitsuen hautatu. Galdetu eta proposatu. Eta bai, batzuetan kexatu ere bai, zerbaitekin ados ez badaude. Eurak protagonista sentituko diren, protagonista izango dituen ikasturte batekin amets egitea.

### Urria: ez dugu amore emango

Lehen zailtasunek sortzen dituzte lehen zalantzak ere. Gaztaroak zerbaite badu da beldurrak beste era batera ikusten direla. Edo, beste gabe, ez direla ikusten. Horregatik, amore ematea ez da sartzen gazteen planetan. Bugobeko anaiak amaierara arte beren misioaren alde borrokatu ziren bezala, haien ereduari jarraitu behar diogu, zerbaite ezin lortu dugula dirudienean amore ez emateko. Amore ez ematea nortaz fidatzen garen jakitea da.

### Azaroa: gure etorkizuna eraikitzen

Parte hartzeko eskubideak eskatzen digu haurrak edo nerabeak bere iritzia osatzeko moduan egon behar duela bermatzea, bai eta eragiten dieten egoerei buruzko iritzia askatasunez adierazteko eskubidea ere, haurraren iritzia kontuan hartuta, beraien adinaren eta heldutasunaren arabera. Parte hartzeko eskubidea berekin dakar gazteek beren etorkizuna eraikitzeko hitza eta botoa izateko duten eskubidea.

### Abendua: harrera egiteko prest

Abendua, itzaroteko prest egoteko aldia. Haur baten etorrera ez da inprobisatzen den gauza, eta are gehiago Haur horrek argi eta ozenki esaten badigu: "Kontatu nirekin". Geure etxean eta geure bizitzan lekua egin behar diogu. Pozari gutaz jabe dadin utzi behar diogu eta poza hori ingurukoei kutsatu behar diegu. Eta prest egon behar dugu, Berri Ona iristen denean, jaio berriari ongietorria egitera joateko. Marcellinok eskatu zigun bezala Haurtxoari ongietorria egiten lehenak izan nahi dugu.

### Urtarrila: geure gain hartzen dugu gure erantzukizuna

Urte berria asmo onez beteta dator, baina hori ez da nahikoa. Asmoak egitate bihurtzeko erantzukizuna hartu behar da. Eta asmo pertsonalekin batera, hil honek bakearen alde borrokatzeko beharra gogorarazten digu. Bakea, denon arteko benetako berdintasuna lortzeko bide bakarra da, guztion etorkizuna segurtatzeko bide bakarra. Bakearen alde lan egitea norberaren esku dago, erantzukizun hori onartu beharra daukagu, eta horregatik ausartzen gara elkarrekin esatera: "Kontatu nirekin".

### Otsaila: asko daukagu esateko

Zaila da ezer esateko ez duten gazteak aurkitzea. Bitartekoak, hizkuntzak, teknologiak dira aldatzen dena. Gazteek presentzia iraunkorra dute mundu digitalean. Mota guztietako hizkuntzak erabiltzen dituzte komunikatzeko: hizkuntza grafikoak, bisualak, musikalak, kei-nuzkoak, estilistikoak. Esploratzeko eremu bat da, denak beren hazkunderaren partaide senti daitezten. Eta egokitzeko garaia, elkar ulertzeko lehen urrats gisa.

### Martxoa: bidelagun izango gaituzu

Garizumak eramango gaitu Jesusek guregana izan zuen maitasun keinu gorenera. Barnera begiratzeko berrogei egun dira, gure bihotza prestatzeko etortzear dagoenerako. Basamortuko egunak dira, baina baita bide horretan maite ditugunei laguntzeko egunak ere. Hurbil ditugu-

nez arduratzeko, geure lagunentzako gidari eta erreferente izateko, geure lanak bertan behera uzteko prest egoteko egunak, gertu senti gaitzaten.

### **Apirila: aitortu nahi zaitugu**

Pazkoa bizi izan duenak ezin du isilean gorde. Sentitzen dena hain da bizia ze bihotza dardarazten eta geure barrena dantzan jartzen baitigu. Nola gorde hori isilean? Gazteen bizitzan ez dago gertaera garrantzitsurik kontaezin ahala dei eta mezuz lagundua ez denik, xehetasun xumeenak ere aztertuz. Ez dago alaitasunik ezkutuan gorde nahi denik. Eta Jesusen Pazkoa da alaitasunik handiena.

### **Maiatza: hemen gaude**

Norberarekin kontatzeko eskatzeak berekin dakar prestasun eta zerbitzu jarrera. Adibiderik onena Mariaren irudian daukagu. Jainkoaren deiari erantzuteko prest dago, erreserbarik gabe, eta, aldi berean, ekimena bere gain hartuz, Kanan egin zuen bezala. Ikasturtea amaitzen ari garen honetan, garrantzitsua da ekimena ez galtzea, zerbitzuko amantala jartzea eta geure abilitadeak besteen zerbitzura jartzea, eta Mariak bezala esatea: "Kontatu nirekin".

### **Ekaina: munduko azken bazterreraino**

Munduko elizbarruti guztiak sartzen ziren Marcelino Champagnaten planetan. Duela 200 urteko mundu hura gaur egun askoz txikiagoa da gaur egun, globalizazioari eta digitalizazioari esker. Mundu horretan jaio dira gure gazteak, eta inor baino hobeki moldatzen dira bertan. Gure misio horizonteak zabaltzeko garaia da, haiek bidera gaitzaten munduko bazter berrietara.

## KARTELAREN AURKEZPENA

Aurtengo kartelak gazteria aurkezten digu tradizio maristaren erreleboa hartzeko irrikaz.. Ikusten duen irudi bat erakusteko eskema tradizionala hautsiz, ikuslea kartelean bertan integratzen du. Behatzailearen eskua bakarrik ikusten da, gazteen artean hain zabaldua dauden bideojokoen antzera, baina borondatez, prestasunez eta zerbitzuz betetako eskua da. Esku horrekin batera, kartela ikusten duten guztiei egiten zaien eskaintza: "Kontatu nirekin." Karteleko gainerako osagai guztiek laguntzen digute ikasturteko goiburua bere sakontasun guztian ulertzen.

**Hermitage:** Abenturaren hasiera markatzen digu, tradizio maristaren hasiera, bere misioan 200 urtetik gora daramatzana. Marcelinorekin ibili ziren gazte batzuekin hasi zen misioa, eta, orain, mundu osoan hainbat eta hainbat anaia eta laikok dihardute lanean. Gazteen arteko hasiera da, eta orain beste gazte batzuen deia jasotzen du, misio horrekin jarraitzeko.

**Bidea/bidezidorra:** historia marista bizia da, dinamikoa, eta aurrera doa denboran. Bideak ingurumenera egokitzen diren bezala, mundu maristak ere une bakoitzeko errealitate sozialera egokitzen jakin du. Eta une honetan hain zuzen, gazteek, pertsona eta kristau gisa, beren hazkuntza eta hezkuntzaren protagonista izateko eskaria egiten digute.

**Mutikoa:** tradizio maristaren historia bi mutil gazterekin hasi zen, eta Marcelinok haiei deitu zien beste inori baino lehen. Eta anaia gazte haiek ireki zituzten lehen eskolak. Hermitagetik, Champagnaten ametsa egia bihurtzera joan ziren hainbat herritaraino. Lekuko maristaren lehen errelebistak izan ziren.

**Elastikoa Europa:** azken urteotan elkarrekin ibiltzen ikasi dugu eskualde marista gisa. Bakoitzaren berezitasunekin, lankidetzan jarduten eta elkarri laguntzen ikasi dugu. Elkarrekin aurrera egiten jarraitu nahi dugu, gure ikastetxeen arteko misio maristaren dimentsio berri bat sortuz.

**Lekukoa:** misioa eta tradizio marista irudikatzen ditu, Champagnaten ametsa egia bihurtzen jarraitzeko errelebista berrien bila dabilena.

**Zapatillak:** mugimenduan egotera eta misio horizonte berriak bilatzera gonbidatzen gaituzte. Oinetako hauek beharrezkoak dira gure oinak babesteko, Pilat mendi elurtuak atzean uzteko eta Europako txoko guztietara energiāz iristeko.

**Eskua:** geu gara, kartelari begira dagoen pertsona oro irudikatzen du. Kartelean integratzen gaituen eskua. Laguntza eskaintzen duen eskua da. Kartela ikustean, 200 urte baino gehiagoko tradizio marista duen gazte askoren eskua: "Kontatu nirekin."



## ABESTIEN AURKEZPENA

### Canción para pequeños: Cuenta conmigo

Cuenta conmigo, Cuenta conmigo  
Y con mis amigos  
Dame el testigo  
Cuenta conmigo, Cuenta conmigo  
Somos pequeños, muy importantes  
Somos felices e interesantes  
Seré astronauta, actriz, ingeniero  
Ser buena gente es lo que más quiero  
Corto la roca con Marcelino  
Junto a María hago el Camino  
Sea lo que sea hoy soy ya mucho  
Cuenta conmigo... te amo y te escucho  
Cuenta conmigo, Cuenta conmigo  
Y con mis amigos  
Dame el testigo  
Cuenta conmigo, Cuenta conmigo  
Cuenta conmigo, no te lo pierdas  
Tú eres adulto/a y no te acuerdas

Eras pequeña y a la vez grande  
Vista de atrás y por delante,  
No nos cansamos no nos rendimos  
Un poco bichos, muy divertidas  
te acompañamos al fin del mundo  
y es que explotamos... si estamos juntos  
Cuenta conmigo, Cuenta conmigo  
Y con mis amigos  
Dame el testigo  
Cuenta conmigo, Cuenta conmigo  
Cómo queremos hacer la vida  
Más succulenta y entretenida  
Si no contamos con los pequeños  
Que damos vida, los que movemos  
Acogeremos con nuestra gracia  
A cualquier niño que le haga falta  
Nuestra familia completa está  
En torno a la mesa ... de La Valla.



**Canción para mayores: Cuenta conmigo**

Somos felices e inconformistas  
Somos sutiles somos artistas  
Algunas veces nos despistamos  
Pero otras tantas las acertamos

Cuenta conmigo, dame confianza  
Yo te devuelvo paz y esperanza  
Entre un buen outfit y un reggeton  
Somos la entrega, todo pasión

Somos un pueblo que está naciendo  
que hace que el mundo siga sonriendo  
cuenta conmigo hasta el fin del mundo  
nuestra respuesta es un Sí rotundo

Cuenta conmigo, quiero anunciarte  
Cerca en las redes y escaparates  
Cortar la roca con Marcelino  
Me hace vivir como un torbellino

*(Estribillo)*

Cuenta conmigo cuenta conmigo  
No soy la meta, soy el motor  
Protagonista de esta canción  
Cuenta conmigo cuenta conmigo  
Cuenta conmigo y con mis amigos  
Es nuestra hora no nos rendimos  
Cuenta conmigo,  
¡Cuenta, que te saldrá cuenta!

Joven y siempre protagonista  
Me sobra arte, sobra carisma  
(me) falta rodaje pero se cura  
mezcla de amor, de arte y locura

Cuenta conmigo, es nuestro momento  
a qué esperar para ser más viejos  
Los nuevos sueños se forjarán

En torno a la mesa de La Valla

*(Estribillo)*

Cuenta conmigo cuenta conmigo  
No soy la meta, soy el motor  
Protagonista de esta canción  
Cuenta conmigo cuenta conmigo  
Cuenta conmigo y con mis amigos  
Es nuestra hora no nos rendimos  
Cuenta conmigo,  
¡cuenta, que te saldrá cuenta!

*(Será mejor que cuentes conmigo  
Porque si no, sé que estáis perdidos)*

Cuenta conmigo, quiero anunciarte  
Cerca en las redes y escaparates  
En las esquinas, en las portadas  
En las caricias y en las miradas  
distancias largas, distancias cortas  
En el romper bravo de las olas  
En los viajes, en las paradas  
Cuando hago todo, cuando hago nada.  
Cuenta conmigo, que estoy contigo  
Eduador, rico o mendigo \*  
Con Dios arriba, Jesús al lado  
Menuda banda nos va escoltando  
Esta energía que me rebosa  
Hará cambiar más de alguna cosa  
cuenta conmigo, que multiplico  
panes y peces, calor y frío  
María lo pide y de agua hago vino  
y mil sonrisas para el camino

en fin, en fin, esto que te digo,  
cuenta conmigo.